

HERRIAREN DEFENTSA-ERAKUNDEEN AKORDIOA,

JUSTIZIA ERRESTAURATIBOAREN,

ELKARRIZKETAREN, ADISKIDETZEAREN,

AKORDIOAREN ETA ERREPARAZIOAREN KULTURARI

BURUZKOA

Bartzelona, 2025eko otsailaren 5a

Testuinguru sozial eta juridiko aldakor honetan herriaren defendatzaileen erakunde publikoek etengabeko hobekuntza planteatzen dute zuzenbidezko Estatu demokratiko eta sozial baten esparruan legeek agintzen dieten misioa eta ikuspegia betetzeko. Ildo honetatik, defentsa-erakunde hauek hurbilketa tradizionaleri eusten badiete ere, gehienetan gainbegiratze-ahalmenetan eta giza eskubideei eragiten dieten irregulartasun posibleen aurrean administrazioei gomendioak ematean oinarritzen direnak, apurka-apurka hurbilketa osagarriak egiten ari dira, xedetzat Administrazioaren eta herritarren arteko aurkakotasun-ikuspegia gainditzea dutenak. Hala, elkarrizketan eta lankidetzan oinarritutako hainbat ikuspegi sartu dira eta, askotan, kaltetutako gizarte-ehuna konpontzeko eta lehengoratzeko sormen-bideak irekitzen dituzte. Hurbilketa horietako batzuk gatazkak elkarrizketaren bidez konpontzeko printzipio tradizional eta modernoetan eta justizia errestauratiboaren kulturen oinarritzen dira.

Justizia errestauratiboaren jatorria zigor-arloari lotuta egon arren, bere sorreran hainbat diziplina eta esperientzia praktikok eragin dute, testuinguru geografiko, kultural eta sozial desberdinetan sortuak, eta horregatik etengabe eboluzionatzen ari den paradigma da. Kontua da pixkanaka justizia errestauratiboak zigor zuzenbidearen mugak gainditu dituela eta giza harremanen eremu guztietan nahitaez sortzen diren gatazkei heltzea ahalbidetzen duen ikuspegi eraldatzaile gisa ulertu da. Ikuspegi honek kaltearen konponketa jartzen du erdigunean, eta, aldi berean, gertaerak ikuspegi zabalago, inklusiboago eta parte-hartzaileago batetik tratatzen ditu. Gaur egun ikuspegi errestauratiboa aplikatzen ari zaie bai zigor-arloko delitu-egoerei, bai, besteak beste, familia-, auzo-, lan-, komunitate-, eskola-, unibertsitate- edo administrazio-eremuko gatazkei, pribatuak zein publikoak.

Dokumentu hau sinatzen duten defentsa-erakunde publikoek justizia errestauratiboaren eta gatazka publikoetako bitartekaritzaren kultura dute oinarri legez esleitzen zaizkien xedeak eta misioa hobeto betetzeko.

Erakunde bakoitzak bere metodologia eta baliabideekin egiten du, eztabaidak konpontzeko justizia errestauratiboko hainbat bide eta metodo egokiak planteatuz, proiektatuz, aplikatuz eta garatuz. Agiri hau sinatzen duten defentsa-erakundeen asmoa eta borondatea kultura horren balio, printzipio eta praktikekiko konpromiso publikoa berrestea da.

Akordio honen bidez, guk, herriaren defentsa-erakundeak edo *ombudsperson*-ak ordezkatzeko pertsonok, Administrazio Publikoaren eta herritarren arteko harremanetan bakearen eta ebazpen baketsuaren kultura egokia, eta ez aurkakotasunezkoa, sustatzeko dugun nahi partekatua adierazten dugu. Kultura hori sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, gobernu onaren, administrazio onaren eta gobernantza onaren printzipioen gauzatze praktikoa moduan, giza eskubideak babesteko eta errespetatzeko esparruan; eta, azken batean, zerbitzu publikoak ematerakoan hurbiltasuna eta herritarrekiko enpatia hobetu nahi ditugu.

Horregatik guztiagatik, honakoak

GOGORARAZTEN DITUGU

1. Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Batzar Nagusiak hartutako 77/224, 75/186, 72/186, 71/200, 69/168, 67/163, 65/205 eta 633/169 Ebazpenak. Ebazpen horien izenburua *Ombudsman erakundearen eta bitartekarien zeregina giza eskubideak, gobernantza ona eta zuzenbide-estatuak sustatzeko eta babesteko da.*
2. Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 1993ko abenduaren 20ko 48/134 Ebazpena, giza eskubideak sustatzeko eta babesteko erakunde nazionalen egoerari buruzko printzipioa ("Parisko Printzipioak"), eta, bereziki, "[...] adiskidetzearen bidez konponbide adiskidetsua aurkitzen saiatzea" aipamena; 69/168 Ebazpena, 2014ko abenduaren 18koa, eta 72/186 Ebazpena, 2017ko abenduaren 19koa, giza eskubideen sustapenean eta babesean ombudsman, bitartekari eta giza eskubideen beste erakunde nazional batzuen funtzioari buruzkoak.
3. 71/189 Ebazpena, bakerako eskubideari buruzko Adierazpenari dagokiona; 53/243 Ebazpena, bake-kulturari buruzko Adierazpenari eta ekintza-programari buruzkoa, eta, bereziki, gatazkak modu baketsuan konpontzea, errespetua eta elkar ulertzea sustatzearekin duen lotura.
4. Nazio Batuen Erakundearen "Zigor-arloan justizia errestitutiboko programen erabilerrari buruzko oinarriko printzipioak" idatzita daudela, justizia errestitutiboko eta bitartekaritzako programa generikoak egiteko eta kudeatzeko jarraibide gisa; halaber, nazioarteko estandarrak daudela, bereziki Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak Europar Batasuneko estatuak zuzendutako zigor-arloko justizia errestitutiboari buruzko MC/Rec (2018) Gomendioa, 2021eko abenduaren 14koa.

Nazioarteko estandar horiekin eta erakundeen borondatearekin bat etorritz,

AKORDIO HAU HARTZEN DUGU

LEHENENGOA. Herriaren defentsa-erakunde moduan, arestian zehaztutako nazioarteko estandarretan jasotako balioak, printzipioak, erregulazioak eta jardunbideak onartzea. Horiek guztiak elkarrizketa, bitartekaritza eta adiskidetzaren kulturari lotuta daude. Ildo beretik, gatazkak konpontzeko beste metodo egoki batzuk eta justizia errestitutiboaren kultura onartzen ditugu.

BIGARRENA. Balio eta printzipio horiek aplikatuz, adiskidetze-publikoko ekimenak, gatazketako bitartekotza, elkarrizketa-, bilera- eta zirkulu- errestitutiboak eta eragindako kalteak –materialak zein sinbolikoak– osorik konpontzeko bideak **bultzatzeko** konpromisoa hartzen dugu. Gure konpromisoa da, halaber, bitartekaritza-prozesuak gauzatzea eta gatazkak konpontzeko metodo egoki guztiak erabiltzea (GKME), herritarren eta Administrazio Publikoaren arteko gatazkak konpontzeko bideragarritzat jotzen badira.

HIRUGARRENA. Ordezkatzen ditugun erakundeetan ekimen horien aplikazioa **aktibatzea**, tresna unibertsal, erregional eta nazionalen aitortutako oinarritzko giza eskubideak errealtate bihurtzeko. Era berean, justizia errestitutiboaren kultura eta Administrazioaren eta herritarren arteko harremanetan gatazken bitartekaritzarekin lotutako paradigma-aldaketa aktibatze konpromisoa hartzen dugu.

LAUGARRENA. Giza baliabideak eta bitarteko materialak **erabiltzea** aurkakotasun-kultura batetik –ekintza zehatzaile administratiboetan edo epaitegietako prozesu judizialean oinarritutakoa– elkarrizketaren, konponbide eraginkorrak eta sortzaileak bilatzearen, eta pertsonen aurkako eta komunitatearen aurkako ustezko ekintza kaltegarrien aurrean konponketa eraginkorrak aplikatzearen kulturara igarotzea ahalbidetzeko. Legea alde batera utzi gabe legezkotasunaren parametro zurrinak gainditzen dituzten ekimenak, hurbiltasuneko eta gobernu oneko irizpideak aplikatzen dituztenak eta interes orokorra nahiz pertsonen eta komunitateen beharrak eta interesak kontuan hartzen dituzten konponbideak bilatzen dituztenak, bizikidetzaren lehengoratzuz, kaltetutako gizarte-ehuna konponduz, eta, azken finean, gizarte kohesionatuagoak, bidezkoagoak, ekitatiboagoak eta baketsuagoak garatzea erraztuz.


BOSGARRENA. Justizia errestitutiboko ekimenei dagokienez, agiri hau sinatzen duten defentsa-erakundeen artean **lankidetzan** aritzea, bai eta Akordio honen xede diren balioen eta praktiken arloan sentsibilizatze, prestatze eta aplikatzeko baterako jarduerak antolatzerakoan ere. Era berean, gatazkak behar bezala konpontzen eta bizikidetzaren lehengoratzen lagun dezaketen ekimen guztiak sustatuko dira.

Eta ondore horretarako, eta horrela jasota gera dadin, herriaren defentsa-erakunde hauetako ordezkariak AKORDIO hau sinatzen dute 2024ko abenduaren 20an: **Andaluziako Arartekoa-Defensor del Pueblo Andaluz, Ararteko-Euskadiko Herriaren Defendatzailea, Kanarietako Diputada del Común, Nafarroako Arartekoa-Defensor del Pueblo de Navarra, Kataluniako Síndica de Greuges, Bartzelona, 2025eko otsailaren 5ean.**


Data horren ondoren agiri honekin bat egingo duten defentsa-erakundeek kalitate eta baldintza berberekin sinatuko dute akordio hau, ondorio guztietarako.




Jesús Maeztu Gregorio de Tejada
Andaluziako Arartekoa-Defensor del Pueblo Andaluz




Manuel Lezertua Rodríguez
Ararteko-Euskadiko Herriaren Defendatzailea



María Dolores Padrón Rodríguez
Kanarietako Diputada del Común



Patxi Vera Donazar
Nafarroako Arartekoa-Defensor del Pueblo de Navarra



Esther Giménez-Salinas i Colomer
Kataluniako Síndica de Greuges